

Musika

«Ez da hain arraroa euskara ulertzen ez dutenengana heltzea»

Gernikarrak Irlandan eta Ingalaterran bira txiki bat egitetik etorri berri dira eta azken urteotako ibilbide arrakastatsuari jarraipena ematen dihardute. Pop-rockaren baitan euskal musikaren harresia gainditu duen taldeko abeslari Eñaut Elorrietarekin hizketaldia izan dugu, eta berak ohi duen moduan biluztu egin zaigu hitzetan eta emozioan. Uztailean Coldplayrekin batera arituko dira, besteak beste.

IKER BARANDIARAN

“Itzali ezin diren argiak gara”. Artistak sortzaile izan arren, garrantzitsua da negoziorekin kontrola ondo eramatea? Hain “iluna”/deserosoa da musikaren alderdi hori?

Gitarra jo eta kantatzea baino deserosoagoa da noski, eta batez ere denbora asko kentzen dizu sorkuntzarako. Azpi-lan hori bere neurrian baloratzen duzu eta CDa eskuetan duzunean sentsazioa beste bat da hala ere. Kudeaketan zure kabuz aritzeko gai izateak, ekonomikoki gauza bazara, askatasuna ematen dizu lana zure eran egiteko. Disko baten atzean dagoen esfortzu, lan, gastu, etekin, medio eta bidelagun jatorrez gain, aurpegi gogorak eta kaxoi ezkutu batzuk ere ezagutzen dituzu. Esperientzia berria izaten ari da dudarik gabe. Dena den, alderdi hone-tan astiro eta tentuz sartu, baina bertatik azkar aterako naizenaren sentsazioa daukat. Baina nork daki.

Euskal talde oso gutxi bezala, zuek erdal kulturako jarraitzaileen harresia gainditu duzue, zuen mezua, jarrera eta pentsaera aldatu gabe. Zein da arrazoa zuen ustetan? Eta zer da jendeak musikarengandik espero duena?

Musika hizkuntza unibertsala da bere horretan, gauzak transmititzen ditu bere kabuz. Egia da kanta on batek bai musika eta bai hitzak behar dituela onak, baina hitzek beren kabuz mezua duten moduan, musikak ere badauka. Beraz euskara ulertzen ez dutenengana heltzea berez ez da hain arraroa, gure herrian gauza hauek karga erantsia duten

arren. Euskara munduari begiratzeko era bat da, gure era, eta erakargarri izatea gure aldekoa dela uste dut.

Ez dakit zein puntutaraino zeharkatu dugun zuk aipatu harresi hori... dena den gu gurera goaz: gure filosofia eta jarrerarekin gure bidea egin, egoera berrietara moldatzen ikasi eta diskorik disko eboluzioa izaten jarraitu; gure sortzeko eta jotzeko eran, mezuetan eta zuzenekoan diseinuan. Bestalde, nik ez dakit orokorrean zer espero den musikatik, niretzat emozio sortzaile fidela da.

“Gure esku dago aldarrikatzea, inork ez digu ezer erregalatuko. Azken aldian Afrika iparraldeko herrien borrokari inbidiaz begiratu diet Euskal Herritik”

EÑAUT ELORRIETA, KEN ZAZPI

“Ihes betean bogan doan itsasontzia, ihes betean baina porturik gabe”. Horientzat portuak eraikitzen hasiak gara?

Itsasontzi bakartiak gara pertsonak, geuregandik ihesean goazenak askotan. Pertsona bakoitzak badu bere portua, norbere buruarekin lagun egiten garen

lekua, nire ustez. Beraz, inork ezin dio beste bati bere portua eraiki.

“Denborak katez urkatu nau isiltasunean”. Zer-bait errutina bihurtu aurretik, denborari aurre egin behar zaio? Nola?

Ez dago denborari aurre egiterik, halabeharrez, hobe da bere lagun egin. Errutinak, apurtzeko bada ere, berez ez dauka txarra izan beharrik, inkomunikazioa da arrisku-tsuena.

Zuen kantetan, hasieratik bukaerara, dagoeneko marka bihurtuta, emozioa pil-pilean egoten da, ez da inoiz arintzen. Zer eman dizue zuei

kantua? Zer da abestietatik gehien hunkitzen zaituztena?

Musika horrela ulertzen eta bizitzen dugu. Emozioak kanalizatzeko, komunikatzeko, askatzeko bidea da kanta. Pertsonak nahiko gorabeheratsuak izan ohi gara sentimendu, sinesmen, emozio... eta kantetan ere gorabehera horiek bilatzen ditugu, olatuak bezalakoak dira, orain igo, orain jaitsi, orain bare, orain oldarkor... Kanta bat sortzea olatu horren gainean surfa egitea da. Eta sentimendu hori kantuan transmititzea da erronka, entzuleak ere entzutean surf egin dezan.

Teloia jausten denean, zer da zailena? Ospea ez da, bada, eroso izango?

Zer edo zer zarela, berezia zarela sinestea harri pisutsu bihurtzen da agertokitik kanpo, bizitzan, norberaren kontra bihurtzen da. Ariketa kontzientea egin behar da zentzu honetan. Eszenatokira igotzen eta bertatik jaisten ikasi behar da, eta agertokitik kanpo goiko hori berbera zarela uste baduzu, zureak egin du, argizatua izaten jarraitzen saiatzearen menpekotasunak asko sufritzera eramán zaitzake. Agertokiak magia berezia dauka zentzu horretan; handik kanpo pertsonok ez. Teoria erraza ematen du, baina inor ez gaude arrisku horretatik kanpo.

Hemen gaude kanta entzun eta gero, Benitori erretiratzeko aukera eman diezaiokegu (berak nahi badu, jakina), ezta?

Mila esker lorengatik, baina gehiegizkoa iruditu zait. Zure galdera entzunda, hala ere, otutzen zait, gustura entzungo nukeela kanta bere ahotan...

"Maite duen bihotz baten mina zeinen ederra den"... eta hari esker/erruz nolako kanta ederak sortzen diren, gehitu dut nik. Ez da hala?

Hori da bizitza azkenean, mugitzen gaituena. Kantak egiteko gogoia pizten duen barne korapiloa.

"Eta ez galdetu inoiz zer galdu genuen negar egin genuenean, malko haiei esker orain itsasoa gara". Ez da ohikoa taldekideek eta, batez ere, ospea lortuta, hainbeste urte batera egi-

tea. Hainbeste sufritu/konpartitu duzue? Zerk batzen zaituzte hainbeste?

Gehiago izan da gozatu duguna, sufritu duguna baino, zorionez. Ez dakit zehazki zer den, gauza bat baino gehiago izango dira ziur batera mantendu gaituztenak. Gustatzen zaiguna egiten dugu, ondo pasatzen dugu, ondo joan zaigu... Baina egia da batzen gaituena une honetan banatzen gaituena baino indartsuagoa dela. Une bakoitza gozatzen ahalegintzen gara, hau ez da betiko-eta. Bukatu egingo denaren oso kontziente naiz. Azkenean, ziklo laburragoa izan arren, bizitza bezalako da. Ez bizi heriotzari ezikusiarrena eginez, bere onarpenak askeago egiten zaitu-eta.



Irlandan eta Ingalaterran jotzen aritu dira Ken Zazpiko kideak apirilean, besteak beste, Londresen, Dublinen eta Belfasten. Ortzemugak begietan diskoarekin taldeak atzerrira salto egitea lortu du.

"Memoria hezurrez eginda dago, gure egia tiroz isildu denean". Noiz helduko da benetako justizia?

Justizia hobi komunetan lurperatuta dago eta gure herria ere, hil ala bizirik baina lurpean nahi izan dute. Gure esku dago aldarrikatzea, inork ez digu ezer erregalatuko. Azken aldian Afrika iparraldeko herrien borrokari inbidiaz begiratu diet Euskal Herriak.

Kanta rockeroekin eta erritmo pisutsuekin ere oso ondo moldatzen zarete (Bala bat ilunpean). Baina, ez da gehien lantzen duzuen...

Gure parte ere bada estilo hori, baina egia da ez dela gailentzen. Bere neurrian baina beti behar dugu. Oreka ematen dugu.

Sarriren Giltzak kantaren hitza sinplea bezain egia borobila da. Ez da hala? Jabetzen gara horretaz?

Egia borobilak normalean halakoak izaten dira, sinpleak. ■